



Cristina Aldasoro
La Salle Berrozpe (Andoain)
3. Saria Batxilergoa (filosofia 3904.21)
Argazkiak: Sara Santos

“Oso ongi pasa dugu Mito Planetako fasean egindako grabazio eta muntaiekin”

Cristina Aldasorok, Batxilergoko kategorian hirugarren saria lortu duen Andoaingo La Salle Berrozpe Ikastetxeko bost ikasleko taldearen arduradunak, orokorrean, eta era berezian Mito Planetako fasean parte hartu zutenean, ongi pasa zutela dio, bai berak eta baita bere ikasleek ere.

- Nola baloratzen duzue, orokorrean, Kosmodisean parte hartu izanaren esperientzia?
- *Joan den urtean ere parte hartu genuen eta “itogarria” izan zitzagun: erabili beharreko softwarea erabat ezezaguna, plataforman “ibiltzeko” eta lanak “igotzeko” arazo asko izan genituen...*
Aurten erosoago ibili gara, baina hala ere, arazoak sortzen dira: denbora falta, uste baino denbora gehiago behar izaten da lana prestatu eta egiteko, ikasleen jarrera eta lana ez da beti zuk nahiko zenukeena...
- Zein iritzi izan dute neska-mutilek lortutako emaitzei buruz?
- *Nire taldekoak oso pozik daude.*

- Zure ustez, ikasleentzako zein balio positibo eskura daitezke Kosmodisean parte hartuz?
- *Taldeko lana, erantzukizuna, sormena eta iniziatiba, IKTak komunikaziorako eta adierazteko tresnen baloratzeko positiboa...*

- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena? Zein alderdi hobetu beharko lirateke, zure ustez?
- *Misioak asko gustatu zaizkit, batez ere bideoarena.*
IKTko softwareak ezagutu eta erabiltzeak, gerorako edo beste gauzetarako aukera asko ematen du.
Mito fasean, grabazioekin eta muntaiarekin oso ondo pasa dugu

- Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duzu?
- *Bai, joandakoan eta aurten bezala.*



IDEIA ETA IRITZIAK

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...
- *Kursaaleko ekitaldia oso polita izan zen, alaia, “moderno”, ikasle guztientzat zerbait baitzegoen, baina sari-ematea nahikoa hotza edo, iruditu zitzaigun.*
Gure ikastetxeko irakasleok ez dugu oso ondo ulertzen zein zerikusi duen simulazio jokoak. Ikasleek (orokorrean, gure ikastetxetik parte hartu duten talde gehienek) nahiko “despistatuak” ibili dira simulazioarekin, “intuizio falta?”.
Ez dut oso ondo gogoratzen zenbat balio zuen jokoak, eta zenbat egin beharreko misioak, baina misiorako askoz ere lan gehiago egin behar da; beraz, misioek puntuazioetan askoz “pisu” gehiago izan beharko lukete.
Eta puntuazio osoa ikasleen esku utzi beharrean, agian hobeto litzateke zuetako batzuk edo kanpoko epaileren batek ere lanak baloratzea eta puntuazioan ere parte hartzea.
Eta nire ustez, puntuazioa ematerakoan zein talde zein postutan zeuden jakiteak “tranpa egitera” bultzatzen zitzaizkien ikasleak.
Gauza bat sumatu dut: talde batzuek ez zuten zuek esandakoa egiten, segur aski argibideei kasurik egiten ez zirelako. Horrelako kasuetan, gero, puntuazioetan, kontutan eduki behar dira.
Eta agian, okerrean: zenbat kostatzen zitzaigun lanak “blogera igotzea”: ez zenekien oso ondo bazegoen ala ez, batzuen lanak desagertzen ziren, eta lanen kalitatea (batez ere bideoaren kalitatea) galdu egin da, azken eguneko arratsaldea galdu ondoren, berriro bideoa editatu egin baikenuen “igotzerakoan sortzen ziren arazoak ekiditeko”, baina kalitate gutxiagorekin, eta gero bideoa ikustean nabaritu egiten zen.
Ez dakit nola, baina beste sistema batzuk (FTP, eta abar) bilatu beharko zenituzkete ikasleen lanak, edozein tamaina izanda ere, blogean arazorik gabe uzteko.